



Hondarribia
Martxan!



Hiri Antolamenduko Plan Orokorra
Plan General de Ordenación Urbana



HONDARRIBIA



Hiri Antolamenduko Plangintza Orokorra

Helburu eta Irizpideak

Laburpen-dokumentua

Zer da Helburu eta Irizpideen dokumentua?

Plangintza-tresna oro hirigintza-politikako helburu batzuk lortzera bideratutako arau eta zehaztapen multzo bat da.

Plangintzaren lehen fasean ezarri behar dira lortu beharreko **helburuak** eta helburu horiek lortzeko jarraitu beharreko bideak, zein diren erabili beharko direnak, hau da, zein **irizpide** erabiliko diren helburu horiek lortzeko.

2021eko irailaren 2an, Udalak **Plan Orokorren Aurrerapena** argitaratzea erabaki zuen. Dokumentu honek hirigintza-egoeraren azterketa bat jasotzen du, eta hainbat antolamendu-aukera iradokitzen ditu.

Iradokizun eta txosten sektorialak jaso ondoren, **2022ko abuztuaren** Helburuen eta Irizpideen dokumentua onartu zen Udal Osoko Bilkuran.

Dokumentu honetan jasotzen dira **Plan berriak jasoko dituen alderdi nagusien proposamena**, proposatutako helburuak lortzeko jarraitu beharreko estrategiak eta etorkizuneko antolamenduaren eskema.



HONDARRIBIA

Helburuak

Jarraian, helburuen laburpena eskaintzen dizugu. Onartutako dokumentuak hemen azaldutakoa zehazten eta osatzen du, eta gonbidatzen zaitugu dokumentu osoa deskargatzera hemen>>>
www.hondarribia.eus/eus/hapo

Bizitegi-parkea

*Jarduera
ekonomikoak*

Ekipamenduak

Euskara

Genero-ikuspegia

Klima-aldaketa



Bizitegi-parkea

Berretsi egiten da bizitegi-parkearen arloan Plan Orokorren erronka nagusiak alderdi hauetan oinarritzen direla:

- Parke eraikiaren **sakabanaketa**.
- Erosteke ahalmen txikiena duen biztanleriak **etxebizitza eskuratzeko zailtasuna**.
- **Mendelu** auzoa birgaitzea.
- **Irisgarritasun eta birgaitze energetikoa**.
- Bizitegi-erabileren eta bestelako **erabileren bateragarritasuna**.

*Plan Orokor berriak **1.620** etxebizitza berri kalifikatzea proposatzen du.*

*Etxebizitza berrietatik, **644** lurzoru urbanizatuan daude.*



Jarduera ekonomikoak

Udalerriaren espezializazio ekonomikoak, lurralde- eta sektore-baldintzatzaile ugariekin batera, **industria-jarduera gutxi ezartzea ekarri du**, Irungo udalerritik oso gertu baitaude.

Plan Orokorraren helburua da **jarduera ekonomikoetarako ahalik eta lurzoru gehien sailkatzea**, indarrean dagoen arau-esparruaren barruan.

Gaintxurizketan
10 hektarea
proposatzen
dira jarduera
ekonomikoetarako.

Zubieta-Urdanibia
eremuan 25
hektareatik
40ra bitartean
proposatzen
dira jarduera
ekonomikoetarako.

Ekipamenduak



Ekipamendu orokorren hornidura ona dago – Udal ekitaldi-aretoa eta Kaizarrako Osasun Zentroa, Musika Eskola, etab.

Hala ere, herritarren partaidetza-prozesuak gabezia puntual batzuk antzematen ditu:

- **Gune zentrala eta biltzeko gunea**, biztanle guztientzako erreferentea.
- **Merkatua**, ekoizpenari eta lehen sektoreari lotuta indartzeko bitarteko gisa.
- **Kulturarako gune** bat.

Haur parke estalia
Karmendalaken.

Botika-Tudeleneako kirol-ekipamendua.

Zuzkidura-alojamenduak
Labrederren.

Alde Zaharreko erakusketa aretoa eta igogailua.


Aire zabaleko agertokia
San Felipe gotorlekuan.

Itsasargi kalearen hasierako plaza estalia
(biribilgunea kenduta).

Emakumeen Etxea.

Joko berde didaktiko eta publikoaren eremua
Biterin.

Euskara




Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriak **eragina izan dezake** Hondarribiko egoera soziolinguistikoan eta, beraz, **neurri zuzentzaileak** ezarri beharko dira.

Genero-ikuspegia



Plangintzan genero-ikuspegia txertatzeari esker, **gizonek eta emakumeek** nahiz gainerako kolektiboek **baldintza beretan** eskuratu ahal izango dituzte baliabide guztiak.



Klima-aldaketa

Klima-aldaketaren mehatxu nagusiak muturreko efektu meteorologikoekin lotzen dira:

- **Uholdeak** (itsas mailaren igoeraren eta uraldien ondoriozkoak).
- Mazelen **irristatzeak** (uholde-uren ondoriozkoak).
- **Bero-uharte efektua** (beroboladen ondoriozkoa).



HONDARRIBIA

Irizpideak

Jarraian, irizpideen laburpena eskaintzen dizugu. Onartutako dokumentuak hemen azalduko zehazten eta osatzen du, eta gonbidatzen zaitugu dokumentu osoa deskargatzera hemen >>> www.hondarribia.eus/eus/hapo




*Hiri-jarraitutasuna
Txingudiko Badian*



Mugikortasuna



Jasangarritasuna



Txingudiko badiaren hiri- jarraipenaren irizpidea

Ez dago **Hondarribiko eta Irungo** hiriak banatzen dituen lurzoru urbanizatu gabeko zerrendarik edo ertzik. Era berean, ez dago integrazio funtzionalik.

Horregatik, ezinbestekoa da bi hiriek, baita aldameneko Hendaiak ere, herritarren premia komunei eta partekatzen duten lurraldearen baldintzei erantzungo dien **eskema bateratua eta integratua** edukitzea.

Aireportua finkatzea, pista handitu gabe.

Zubietako enpresei zerbitzu egiteko, jarduera aurreratuetarako eta zuzkidura-zonetarako parkea garatzea.


Txingudiko eremu babestuan, natura- eta ingurumen balorazio handieneko erabilerak.

Motor bidezko, oinezko eta bizikleta bidezko komunikazio sarea hobetzea (N-636 errepidea, Mendelun zehar zubibide gisa bideratzea, Oinezkoen eta bizikleten sarea hobetzea Hondarribia - Irun konexioan).

Hiri-kalitatea hobetzea eta Mendelun eta Eskapatxulon.



HONDARRIBIA



Mugikortasun-irizpidea

Bizi-kalitatea hobetzer

bideratutako mugikortasun-eredu bat ezartzen lagundu nahi da, ingurumenarekin konprometitua, energetikoki eraginkorragoa, ekonomikoki jasangarriagoa eta irisgarritasun handiagoa bermatzen duena, bai lurraldeari dagokionez, bai gizarteari dagokionez, pertsona guztientzat eskuragarria, eta arreta berezia jarritz desgaitasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsoneri, bai eta “zaintzaren mugikortasuna” deitutakoari ere.

Oinez egin beharreko joan-etorriak indartzea.

Espaloiak handitzea Jaizkibel etorbidean, Baserritar etorbidean eta Kosta kalean.

Espazio publikoaren egonaldi-kalitatea hobetzea.

Bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzea.

Proposatutako sareak auzoekin lotuko ditu ekipamendu nagusiak.

Garraio publikoa sustatzea.

Bideak, trafikoa eta aparkalekua antolatzea.



HONDARRIBIA



Ingurumen- jasangarritasunaren irizpidea

Ingurunea kontserbatzea eta babestea **funtsezko elementua** izan behar da hiria antolatzeko proposamenean, hiria txertatzen den ekosistemaren aldaketa txikiena eragiten saiatuz, honako estrategia hauen bidez:

*Ingurumenean eta lurraldean ahalik eta **inpaktu txikiena** eragitea.*

*Ahalik eta baliabide eta energia **gutxien** kontsumitzea.*

*Ahalik eta **hondakin** eta **emisio gutxien** sortzea.*



HONDARRIBIA



Jasangarritasun sozialaren irizpidea

Populazioen **kohesioa** eta egonkortasuna sendotu nahi dira; pertsonen arteko harremanak eta komunaren erabilera kolektiboa, **pobreziaren eta desberdintasunen murrizketa bermatuz**, eta gizarte-bazterkeriako egoerak saihestuz.

Hiri-bilbean hutsuneak betetzea.

Mendelu eta Alde Zaharra bezalako **eremuak berroneratzea.**

Hiri-eredu jasangarriago bat definitzea, **sakabanatzea saihestea** garapen trinko baten bidez.

Eraikigarritasun ertainak ezartzea, bizitegi-erabilera isolatuak saihestuz

Hurbiltasun inklusiboko espazio libreak sortzea.

Erabileren nahasketa sustatzea.

Egoitza-tipologia berriak sustatzea (Cohousing, 3. adina...)

Eraikitako ondarearen erabilera jasangarriagoa sustatzea.

Birgaitzea sustatzea, bereziki, energia eta irisgarritasuna.

Plangintza orokorrean **irizpide bioklimatikoak** sartzea.

Lehendik dauden etxebizitzak **bizigarritasun-baldintzak hobetzea.**

Bizitegi-lurzoruan ezartzen diren **erabilera turistikoko etxebizitzak arautzea**, oreka bermatzeko eta monolaborantza turistikoa saihesteko.



HONDARRIBIA



Jasangarritasun ekonomikoaren irizpidea

Ekonomiaren, ingurumenaren eta gizartearen garapena bateragarri egitea, berdintasunari, gizarte-kohesioari eta kalitatezko enpleguari mesede egingo dion ekonomia lehiakor eta produktibo batean.

Horrek **baliabide naturalen zentzuzko erabilera eta ingurumenarekiko errespetua** bermatzen ditu, egungo beharrak asebetetz, etorkizuna arriskuan jartzeke.

Jarduera ekonomikorako lurzorua erabilera dibertsifikatuak ezartzea, hurbileko ekonomia-espazioak sortuz eta lurzorua erabilera eksklusiboetan bereiztea saihestuz.

Erabilera-erregimen egokia ezartzea.

Arreta berezia jarri behar zaie jarduera ekonomikoaren erabilera berriei: **etxebizitza turistikoak, sukalde mamuak.**

Jarduera ekonomikoetarako lurzorua eskaintza handitzea.

Lehen sektoreko jarduerak sustatzea, hiri-erabileren lehia saihestuko duen erregulazio baten bidez.

Nekazaritzako produktuen merkaturatzea hobetzea sustatzea.

Udalerriaren indarguneak indartzea kokapenari dagokionez.

Autoenplegurako proiektuak edo elkarlanerako espazioak (coworking) sustatzeko eta laguntzeko ekipamenduak aurreikustea.



HONDARRIBIA



Kultura-jasangarritasunaren irizpidea

Biztanleria egonkortzen duen hiri kohesionatu batek bezala, pertsonen arteko harremanak eta komunaren erabilera kolektiboa sustatzen ditu, eta **komunaren erabilera horrek eta pertsonen arteko harremanek kultura-erabilerak eta -jarduerak sustatzen dituzte.**

Hiri-espazioak berritzeko eta biziberritzeko ekimenak.

Leku-izen normalizatuak izatea eta zabaltzea, eskala guztietako kartografian txertatuz.

Kultura- edo sormen-industriak sustatzea.

Dagoen kultura-azpiegituraren beharretarako konponbideak bilatzea.

Kultur azpiegituren mapa amaitzeko irtenbideak bilatzea.

Korridore kulturalak sortzea.

Emakumeei lotu dakizkiekeen lekuei balioa ematea.

Ondarearen katalogoan sartu beharreko eraikinen eta eraikitako elementuen zerrenda berrikustea.

Arkitektura garaikidea eta defentsiboa katalogoan sartzea.

Ondare arkeologikoa Plan Orokorriari gehitzea

Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna identitatearen ezinbesteko zatitzat hartzea.

Hondarribian euskararen normalizazioa sustatzea.

HAPOn hizkuntza-ikuspegia txertatzea.